

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

#### **Foru Gobernu Kontseiluaren 676/2023 Erabakia, urriaren 24koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoaren foru sektore publikoko kargu publikodunen eta ordezkarien Etika eta Gobernu Onerako Kodea**

Ordenamendu juridikoak diotenaren arabera kudeatzaile publikoek erabateko arduraz aritu behar dira karguan, eta gardentasunez, inpartzialtasunez eta objektibotasunez jardun behar dute agintzeko eta administrazioa zuzentzeko egitekoetan, beste interes eta jarduera batzuek egiteko horiek gauzatzea oztopatzen edo baldintzatzen ez dutela bermatzeko.

Horrela, aurreko bi legealdien hasieran, kudeaketa publikoan jardunbide egokiak ezarri eta garatzeko konpromisoa betetzeko, Arabako Lurralde Historikoaren sektore publikoko kargu publikodunen eta ordezkarien etika eta gobernu onerako kodeak onetsi ziren.

Gainera, foru kargu publikoen jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak 19.1 artikuluan xedatzen duenez, Foru Gobernu Kontseilua eratzen denetik lau hilabete pasatu baino lehen Foru Gobernu Kontseiluak etika eta gobernu onerako kodea berretsi edo onetsiko du, eta kode horretan jaso eta garatuko dira erakunde kalitatearen printzipioak, herritarrekiko harremanen printzipioak eta etika eta jokabide printzipioak.

Epe hori azaroaren 4an amaituko dela kontuan hartuta, egungo Gobernu kideak, Lurralde Historikoaren interes orokorraren defentsaren erreferente eta bermatzaileak, herritarrek haiengan jarri duten konfiantzari erantzunez, foru sektore publikoan printzipio etikoak indartzearen bultzatzaile eta aitzindari dira.

Horretarako ezinbestekoa da konpromiso etiko eta jokabide konpromiso jakin batzuk finkatzen dituzten arauak ezartzea, bai eta jardunerako printzipioak finkatzen dituztenak ere, portaerak nolabait bideratzeko. Nolanahi ere, printzipio horiek guztiak etika publikoaren edo zuzenbidezko estatuaren berezko araudiaren osagaiak badira ere, onuragarria izan daiteke, batetik, kargu publikodunen balioen funtsa zertan laburbiltzea eta, bestetik, gogoraztea pertsona horiek etika eta gobernu onerako kodearen oinarrizko printzipioak bultzatu eta errespetatu behar dituztela.

Gainera, kudeaketa publikoaren egungo ikuspegiak gomendatzen du foru sektore publikoan ari direnen jokabide pertsonalak bateratzea laneko prozedura, egitura eta antolamenduan jokatzeko jarraibideekin. Hori dela eta, zintzotasuna eta gardentasuna kode deontologikoaren funtsezko balioak direla adierazi ondoren hainbat konpromiso eta jokabide estandar ezartzen dira erakundearen xedeak lortzeko, erakunde kalitaterako printzipio gisa, eta horiez gainera herritarrekin (zerbitzu eta politika publikoen hartzaileekin) aritzeko printzipioak eta foru kargu publikoetan aritzeko printzipio etikoak eta jokabide printzipioak ere bai, ardatzean ondoko balio hauek daudela: eraginkortasuna, efizientzia, ardura, prestutasuna, soiltasuna, eta erabakiak hartzean neutraltasunez eta inpartzialtasunez jokatzeko.

Azkenik, adierazi behar da ez dela deklarazio hutsezko edo egiazko ondorioz gabeko kodea; izan ere, automatikoki atxikitzeko araubide bat ezartzeaz gainera, xedatzen da, ez-betetze bat egiaztatuz gero, abian jarriko dela jarraipeneko barne sistema bat, betetzen duen postuko dimisioa aurkeztera, kargutik kentzeko ahalmen diskrezionala erabiltzera edo gomendioak ematera eraman dezakeena.

Helburu horrekin sortu zen Arabako Lurralde Historikoko gobernu kideen eta foru sektore publikoko goi-kargudunen etika publikoko batzordea, oharrak, kontsultak eta iradokizunak jasotzeko organo eskudun bezala, bai eta etika eta gobernu onerako kodean ezarritako zehaztapenak egokitzeko proposamenak egiteko eta benetan martxan jar daitezen sustatzeko prozedura ere.

Etika publikoko batzordearen osakerari dagokionez, lehendakaritza eta idazkaritza mantentzen dira, bai eta Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 22ko 509/2015 Erabakiaren bidez egindako izendapena ere, etikarekin, zuzenbidearekin edo gobernantzarekin loturiko gaietan esperientzia, gaitasuna eta ospe profesional egiaztatua dituzten bi pertsonena. Hala ere, gobernantzari buruzko eginkizunak, besteak beste, izango dituen foru sail berri bat sortzearen ondorioz, beharrezkotzat jotzen da sail horretako titularra batzorde horretako kide izatea, Diputatu Nagusiaren Kabineteko zuzendaritzaren ordeaz.

Horregatik, diputatu nagusiaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko kargu publikodunen eta ordezkarien Etika eta Gobernu Onerako Kodea onestea.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 24a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Berdintasun, Euskera eta Gobernantza Saileko foru diputatua*

**JONE BERRIOZABAL BÓVEDA**

*Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria*

**LEXURI UGARTE ARETXAGA**